

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LEGUTIOKO UDALA

#### **Arauz kanpo erroldatuta egoteagatik udalaren biztanle erroldan ofizioz baja emango zaiola jakinaraztea interesdunari, helbide ezezaguna baitu**

Saiatu arren jakinarazten espedientea hasi delako ebazpena Legutioko biztanleen udal erroldan ofizioz baja emateko, arauz kanpo erroldatuta egoteagatik, zeina ondoren hitzez hitz ematen baita, jakinarazpena ezin izan da gauzatu, espedientean agerian jarri denez, eta, beraz, iragarki hau ALHAOn argitaratuta eta udalaren iragarki taulan ezarriz gauzatzen da, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenak, 59. artikuluan xedatutakoa betetzearren.

Espedientea Legutioko Udalean dago interesdunen edo haien legezko ordezkarien eskura.

“Saiakera eginik Tefegabr Gebrekrto-i San Roke kaleko 11-B behean jakinarazteko etxebizitza horretan bizi ez den zantzuak daudela, eta helbide aldaketarengatik baja emateko jakinarazpenik jaso ez denez,

Ikusirik:

30/1992 Legea, azaroaren 26koa, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearena.

7/1985 Legea, apirilaren 2koa, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak.

Uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretuak, toki erakundeetako biztanleriaren eta mugapeen arautegia onartzen duenak, hau xedatzen du 72. artikuluan: udalek ofizioz emango diete baja, arauz kanpo inskribatuta egoteagatik, erroldatuta egon eta arautegi horren 54. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen ez dituztenei, hori hala dela egiaztatu ondoren dagokion espedientean, zeinetan interesdunari entzunaldia emango baitzaio.

Idazkariordetzaren 2015eko martxoaren 16ko Ebazpena, zeinaren bidez argitaratzen baita Estatistikako Institutu Nazionalaren lehendakariaren eta autonomia erkidegoekin eta toki erakundeekin eskumenak koordinatzeko zuzendari nagusiaren 2015eko urtarrilaren 30eko Ebazpena, udal errolda kudeatzeko udalantzako jarraibide teknikoei buruzkoa. Ofiziozko bajak 5.2.4. idatz zatian xedatutakoaren arabera egin behar dira; alegia, udalak arauz kanpo erroldatuta egoteagatik ofizioz baja emango die erroldan izena emanda daudenei, baldin biztanleen arautegiaren 54. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen ez badituzte, hori hala dela egiaztatu ondoren dagokion espedientean, zeinetan interesdunari entzunaldia emango baitzaio.

Baliatuz apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, abenduaren 16ko 57/2003 Legeak emandako idazkeran, 21.1.a), d) eta s) artikuluetan esleitzen dizkidan eskumenak.

**EBAZTEN DUT:**

Lehenengoa: Legutioko Udalaren biztanle erroldan ofizioz baja emateko espedientea hastea, arauz kanpo inskribatuta egoteagatik, Tefegabr Gebrekrto-i:

Bigarrena: interesdunari jakinaraztea ofizioz baja emateko espedientea hasi dela, berari zuzenean jakinarazpena bidalita eta, hala badagokio, udalaren ediktu taulan eta ALHAOn argitaratuta.

Hirugarrena: hamar egun balioduneko epea ematea, interesdunari jakinarazpena egin edo jakinarazpen hori argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, ados ez badago egoki jotzen dituen alegazio, agiri eta egiaztagiriak aurkez ditzan, urteko egun gehienetan udalerrri honetan bizi dela frogatzeko.

Laugarrena: izapide guztiak egin eta gero, Errolda Batzordeari bidaltzea ofizioz baja emateko espedientearen kopia, ofizioz baja ematea bidezkoa den erabaki dezan.

Legutio, 2016ko azaroaren 7a

*Alkatea*

**NEKANE GARAIGORDOBIL BENGOA**